**FITXA: 238 – ARABA - Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeetan auzo harremanak sustatzeko ekimenak 2027an gauzatzeko laguntza lerroaren deialdiari**

| | |
|---|---|
| **Nori zuzendua:** Auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako Auzolan-Veredas programako laguntzez baliatu ahal izango dira arabar kontzejuak, baita 500 biztanle baino gutxiagoko gune bakarreko arabar udalak edo biztanle gehiagokoak ere bai auzoetan edo udalari zuzenean atxikitako biztanle guneetan jarduerak egiteko, Arabako Foru Nomen klatorean hala jasota baldin badaude berariaz eta 500 biztanle baino gehiago ez badituzte | |
| **Deialdia:** ALHAO - Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala | **Deialdiaren data:** 2026/05/29 |
| **Sarbide-esteka:** https://egoitza.araba.eus/eu/-/relaciones-vecinales | |
| **Erreferentziazko araudia:** 324/2026 Erabakia, maiatzaren 26koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. - https://www.araba.eus/BOTHA/Boletines/2026/061/2026_061_01558_E.pdf | |
| **Eragin eremuak:** Inmigrazioa, Bizikidetza eta Giza Eskubideak | |
| **Zenbatekoa:** 737.759,00 € | |
| **Aurkezteko lehen eguna:** 2026/05/30 | **Aurkezteko azken eguna::** 2026/06/30 |
| **Aurrerakina:** Ez da zehaztu. | **Aurrerakinaren gehieneko %a:** Ez da zehaztu |
| **Gehieneko zenbatekoa:** 30.000,00 € | **Gutxieneko zenbatekoa:** Ez da zehaztu. |
| **Tramitazioa:** Norgehiagoka. | |

## Laburpena

Onestea Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei Auzo Harremanak Sustatzeko Ekimenetarako programaren kontura norgehiagoka bidez laguntzak emateko deialdia

## Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Programa honetako laguntzak jaso ahal izango dituzte honako obrek:

a) Urak hornitzeko edo saneamendu sareen zati baten konponketa ez espezializatuak, kaleen edo bide publikoen zoladura, sistema honen bidez egin ahal badira.

b) Kontzejuko aretoen, Gizarte zentroen, titulartasun publikoko kultuko tokien, bolatokien obra txikiak, teilatuak, konponketak eta konponketa ez espezializatuak egiteko, edo Obren eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen 19/2010 Foru Arauko 7. artikuluko 3. atalean jaso eta enuntziatutako tokiko ekipamenduen beste kontzeptu batzuetarako.

c) Lorategiak, fatxadak, espazio komunak eta abar konponduz, herria apaindu edo edertzeko jardunak.

d) Bideak, bidexkak, errekak, ur-bazterrak eta ureztatze-ubideak garbitzeko eta mantentzeko obrak.

## Jarduera-ildoak

Ez da zehaztu

## Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Ez da zehaztu

## Gastuetarako aldi hautagarria

Deialdi honen babesean diruz lagundutako jarduketak amaitzeko azken eguna 2027ko azaroaren 30a da. Epe horretarako aurkeztu beharko da, halaber, lan horiek egin izana justifikatzeko dokumentazioa, zeina nahikoa izan beharko baita dirulaguntza kalkulatzeko eta dirulaguntzaren ordainketaren izapideak egiteko.